

**SANTA AGEDA KOPLAK
SOPELANA-URDULIZ INGURUAN**

«MIKEL ZARATE» Iker Mintegia

Labayru Ikastegia

SARRERA

Hemen batutako koplak Jon Iñaki Zunzunegi eta Agurtzane Iturregik bilduta dagoz. Gero Adolfo Arejitak konprobatu eta sistematizaturik apur bat. Sopelako eta Urdulizko gizon eldu birengandik jasoak dira ia danak: Xabier Legarra eta Jesus Zunzunegi. Agurtzane Iturregik jasoak beste iturri bat dabe, eta bereizteko, badaezpadan (A.I.) ezaugarriaz bereiztuko ditugu, naiz eta toki berekoak izan.

Gaztetxoek lehenago Sopelan ere, beste herri askotan legez, Eguen Zuri egunez kantatzen eben, eta nagosiek Santa Ageda bezperan. Kantatzen joiazanak bakotxak makilla bana eroaten eben, basoan artu ta egiñikoak. Makillok San Blas zintekin ornatuta eroaten ebezan koplakantari joiazan gazte aldrak. Goizean eguna argitu baiño lehen asten ziran kantatzen (seirak-zazpirak inguruan), eta egun osoan jarraitzen eben illuntzera arte, zortzirak ingurura arte. Bazkaritzat bokadilloren bat edo beste ezerezkeriren bat bakarrik artzen eben. Danerik batzen eben: dirua, txorizoak, arrautzak, sagarrak... gero illuntzean afari-meriendatxo bat egiteko, eta gaiñerakoa bananduteko. Oitura zan Urdulizen, herriko lagun zahar batek batutakoaren errepartoak egitea afari ostean.

Etxe bakotxera joakeran, koplak kantatzeko jarraitzen eben araua hauxe zan gutxi gora-behera. Lehenengo agurrezko bertsoaren bat. Gero bi edo hiru Santa Agedari eskeiñiak. Ondoren bertso bat etxeko jaunari; gero etxekandereari, ostean neskatxari, urrengo mutillari... edo baita etxeko besteren batzuei ere. Koplaren bat etxeko guztientzako ere kantatzen zan. Hori danori egin ondoren, sari-eske egiten ziran bertsoak, eta azkenez, agurrak, despedidak. Etxe bakotxean luzaroan egoten ziren kantariok, ogei minutu-edo. (Goizean goizetik gau berandura geratu barik kantatzen, eta Sopela herri naiko txikia zalarik). Asarreak ere egoten ei ziran sarritan: norbaitegaz ahaztu egin zirelako, zeri edo hari kantatu ez eutselako, edo dana dalakoagaitik, eta gehiago kanta-tuazoten eutsen.

Ondoren eskeiñiko ditugun koplak, kantatuko ziren beste askoren artean batzuk baiño ez dira izango, behar bada. Barianteak hainbat izaten dira, herri batetik bestera ezeze herri baten barruan ere. Gu ahal dugunik eta zehatzen ordenatzen ahalegindu gara, baiña horrek ere ez dau esan gura gitxi gora-beherakoa ez danik. Transkribaketan izango dira ziurrik utsak, grabaketarik izan ez dan ezkerro zehatz konprobatzeko, baiña ahal dan neurrian kantatzen ebezan modu bardinean idazten ahalegindu gara.

ASIERAKO KOPLAK

Asierarako bat baiño gehiago egoten ziran. Adibidez:

OLES OLES ATETAN
NOR DABIL ORDU ONETAN
AMABI MUTIL ALKAR ARTUTA *AUSOETAKO MUTIL SASTARRAK*
AUSOAK INKOMODETAN *BASTARRAK INKOMODETAN (A.I.)*

Antzeko beste asierako koplak bat ere baegoan:

OLES OLES ETXEKOAK
EMEN GATOS GU ESKEKOAK
AMABI MUTIL ALKAR ARTUTA
GUSTIOK AREN MODUKOAK

Etxera sarrerako beste asiera koplak bat ondorengo hau ere bazan, aspaldikoa:

NAGOSI JAUNA AURRERA
ERREBERENTZIA LURRERA
LOTZA GERALA ETORRI CERA
JAUNA BERORREN AURRERA.

Geroago sortua ei da, goikoa baiño, hau beste hau:

Santa Ageda, Ageda
bier da Santa Ageda
bier da Santa Ageda eta
gaur bere bespera gaua. *Deunaren Bcspcra gaba (Urduliz)*

Ondoren honako koplak kantatzen ziran. Urdulizen modu batera, etasopelan beste batera:

EDER ELEISAN ALTARE
ARRI LANDUSKO PILLARE
BIRJIÑA AMAREN SEME-ALABAK
ETXE ONETAN DIRADE (Sopelan)

EDER ELISAN LIBIRU
USUAK AREN INGIRU
ETXE ONETAKO TXIKI-AUNDIAK
PARADISUAN AINGIRU. (Urduliz)

Urrengo bertso hauxe:

Santa martiri maitia
dago errukis betea
berak alkantza egin daigula
Osasuna ta bakea.

Urrengo bertsoak ere Sopelan eta Urdulizen era bi ditu:

Santa Ageda esta isetean beti illean illean urtean bein'txe beratan bere seseillearen bostean (Sopela)	Santa Ageda esta isaten beti illian illian urtean bein eta berean seseillan bostgarrenran (Urduliz).
-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------	---------------------------------------------------------------------------------------------------------------

Hau etorren gero:

Santa Ageda Ageda se santa eselentea martirioak pasa situen	irabastearcn fedea, Jaun serukoaren legea.
-------------------------------------------------------------------	-----------------------------------------------

HERRIKO GIZON BEGIRAGARRI ETA ETXEKOEI KOPLAK

Oiturea izaten zan, lehenengo alkatearen etxe aurrera joan eta bertsoak kantatzea. Holan diño:

1. ALKATE JAUNAS EGONDU GERA ALKATE JAUNAS EGONDU GERA
ATZOKO ARRATZALDEAN ATZOKO ARRATZALDEAN
LIBERTADEA GEREKIN DEGU LIBERTADE EMONIK DEKU
IBILLITZEKO BAKEAN. IBILLITZEKO BAKIAN (A.I.)
2. ES BAGABILTZES BAKEAN ETA ESPAGABILTZ BAKEAN
GEURE BURUEN KALTEAN SARTU KARTZELA BATEAN
SARTU KARTZELA BATEAN ETA ETA ES ATARA, ATARA BERE
GAUR URTE BETE ARTEAN (Sopelan) ILLE PARETXU BETEAN (Urduliz)

ES BAGABILTZE BAKEAN
GEURE BURUEN KALTEAN
KARTZELA BATEN SARTUKO GEITXU
EZ PAGABILTZE BAKIAN (A.I.)

Ikusten danez, herri berean aurkitu leitekez aldagarri txikiak, eta herri batetik bestera bardin.

ETXEKO JAUNARI EGINDAKOETARIKOAK

ERREKALDIAN LISARRA
SERU GOYEAN ISARRA
ETXE ONETAKO NAGOSI JAUNAK
URREGORRIS DAU BISARRA

URREGORRIS DAU BIXERRA ETA
DIAMANTESKO ESPALDA
BERORI BESIN GISON PRESTAUARIK
ERRI ONETAN EZ AL DA.

ETXE ONETAKO ETXEKO JAUNA
GISON ONA TA NOBLEA
ELISAPEAN ESTA SARTUTEN
ONEN PAREKO GISONIK (A.I.)

ETXEKO ANDREARI

EDER INTXORREN KORDENA
ALAIXE DEGU ORDENA
ETXEKO ANDREA KOPLATUTEKO
NAGUSI JAUNAN URRENA.

ETXE ONETAKO ETXEKO ANDREA
ANDRE ONA TA NOBLEA
EGUNO BERE ESTEU BIALDU
LIMOSNA BARIK POBREA (A.I.)

ETXE ONETAKO ETXEKO ANDREA
ANDRE ONA TA NOBLEA
BIDEAN GATOS INFORMATURIK
SELAN DAN LIMOSNEREA (A.I.)

ETXE ONETAKO ETXEKO ANDREA
AMAR GONAREN JAUBE DA
PASKO GOXIAN JANTZIKO DITXUS
AMAR GONE BERE SOÑEAN (A.I.)

SURI NABARRA ASPIKO
GORRI EDERRA GANEKO
BESTE SASPIRAK YANTZI ESKERO
DIRUDI ERREGIÑEA (A.I.)

Ikusten danez ordena aundirik ez dago kopla honeetan. Euskera aldetik ere nahaste edo alkar-eragin aundia susmatzen jake. Adibidez «suri nabarra ganeko» diñonean bertakotu egin da koplea, -A mugatzaillea aurreko bokalari asimilatuaz, inguru horretako euskeran jazoten danez. Baiña hori ez da beti gertatzen; beste batzuetan ezagun da beste leku bateko erak direna, gipuzkerazkoak ere ez gitxi.

ETXEKO DAMA GAZTEARI:

ORTXE GOIEN IDIE
ARETXEN BEGI ARGIE
ELASTUNETIK PASA LEITIKE
(MARITXU) SURE GARRIE.

ORTXE GOIEN BOST ARDI
IRU YANTZAN TA BI ADI
ETXE ONETAKO ANA MARI
MERKATARIEK AMABI,
MERKATARIEK AMABI DEITXU
SEIÑ ELEJIDU ESTAKI.

UDABARRIEN URTETZEN DEUDE
ERREKA MUNAN BITXIEK
ARETXEK BAÑO POLITAU DIRE
(MIRENTXU) SURE BEGIEK.

KLABELIÑAREN ORRIAREKIN
LARROSA MAYATZEKOA
EMENTXE NAGO SURE BEGIRE
(MARITXU) BIOTZEKOA.

ORTXE GOIEN BOST ARDI
IRU YANTZAN TA BI ADI
ETXE ONETAKO (MARI BITORI)
KLABELIN GORRI DIRUDI

ATE ATZEAN ESPATA ATE OSTIEN ESPATA (A.I.)
ES (MARITXU) ESPANTA
JAUN SERUKOAK GORDEURIK DEUKA
SEURETZAT MORROI GALANTA.

.....

MARITXU NON SERA
EMEN AGIRI ES SARA
SEU EKUSTEATXIK EKARRI DOTZUT
AINBESTE MUTIL ATERA (A.I.)

YAN BARIK NAGO EDANTA
ESIN ISILIK AGUANTA
MARITXU EMEN KUADRILLEN DOSU
SEURE NOBIO GALANTA (A.I.)

EDER SOLOAN GARIE
SOINEAN GONA GORRIE
ELASTUNETIK PASA LEITIKE
MARITXU SEURE GARRIE (A.I.)

IDI SURIEK BAJATEN DAUDE
MENDI ALTUTIK OTEA
SURIS TA GORRIS PLEGAURIK DAGO
MARITXU SEURE DOTEA. (A.I.)

.....
ULEA DEKOT ESPANEAN
ESTOT EDATEN ESTAUNEAN
KUARTILLUTXU BET EDANGO NEUKE
MARITXU SEURE ISENEAN.

ZALDUN GAZTEARI KOPLAK

ORTXE GOIEN MADARI
ERRAMAK DEITXUS BERA ADI
ETXE ONETAKO SALDUN GASTEAK
AMALAU URRE TXINTXARRI.

AMALAU URRE TXINTXARRI
SASPI DAMAREN EGUSKI
AREK DANAK OLAN ISENIK
GEIAGO DEITXUS MERESI.

BARTZELONAKO ASTILLERUEN
BARKU BARRI BAT DAU ITXEN
ETXE ONETAKO (JOSE MARI)
ARA YOATEKO KAPITXEN

ETXE ONETAKO (ANTONIOTXUA)
ARETXE DOA KAPITXEN (A.I.)

.....
ETXE ONETAKO (ANTONIOTXUAK)
URRE GORRIS DEU BIXERRA
URRE GORRIS DEU BIXERRA ETA
DIAMANTESKO ESPALDE (A.I.)

ETXE ONETAN BAKE DA
ONDARRUAN GERREAN
ETXE ONETAKO MUTIL GASTEAK
BAKEAK ITXEN ARE DA (?) (A.I.)

ESKE BERTSOAK:

OKARAN TXIKI GARAUS BETEA
AURTEN DA SEURE URTEA
BOST OGERLEKO EMON ESKERO
URTE GUSTIKO BAKEA

EMOTEN BADOSU EMOIXU
EMOT'ESPADOSU EXEIXU
BESTE BATERA YOATEKO BERE
EMEN BELU EIN BER DAKU

ORRA OR GOIKO PIÑU ARTIAN
GISONAK EIÑ DAU KIÑUE
ARETXEK ESAN EMONG'OSKULA
TABERNARAKO DIRUE.

.....

KANTA KANTA MUTILLAK
BAPERRE BILDUR BAGARIK
ETXE ONETAN ESTA ISANGO
KARIDADEAN FALTARIK (A.I.)

.....

GOIKO MENDIAN LAÑOIA
ERREKALDEAN ISOTZA
ASUNBRE ERDI BAT EDAN ESKERON
ALLEMA LEIO BIOTZA

AURTEN IL BASU TXARRIRIK
ES EISU ESAN GUSURRIK
PIXKA TA PIXKA IBILLI BARIK
EKARRI EISU OSORIK.

EZER EMOTEN EZ EBENEI KANTATZEN EUTSOEZANAK:

ETXE AURREAN ASURRE
ETXE ATZEAN ASURRE
SANTA AGEDAK EMON DEITZULE
KAKA PIRRI TA ASTULE

GUASEN GUASEN EMETIK
EMEN ETXAGOK GAUS ONIK
ATORRA SAR BAT IKO-GANEAN
TA DANA KAKAS BETERIK.

Sopelanako «ALKARTASUNA» taldekoek orain 25 urte kantatzen ebezanetarikoa dogu etxeko guztiei eskeiñitako hau:

BEDEINKATUA ISAN DEDILLA
ETXE ONETAKO JENTEA
TXIRO TA APALA DABILLENANTZA'T
BADEUKE BORONDATEA.

DESPEDIDA EDO AGURRA

Hemen ere era askotara egin oi zan agurra. Kopla bat baiño gehiago eukezan honetarako ere. Adibidez:

EDER ESPATA MAJIAREKIN
MAJIA PANTALOREKIN
ETXEKO ANDREA ETORRI SAIGU
ESKUAN LIMOSNAREKIN.

LIMOSNA ERE ARTU DEGU TA
ORAIN ABIA GAITIAN
ORAIN EMETIK BAGOAS ETA
AGUR IKUSI ARTEAN.

ADIOSIKAN EZ DEGU ETA (A.I.)

SOPELANAKO SEMEAK GARA
PARAJEKOAK GARA GU
ETXE ONETAN ERRATU IN BADU
JENTE NOBLEA PARKATU.

GURE JAUNGOIKO(K) JENTE NOBLEA
OSASUNA EMON DEISKULA
ORAIÑ EMETIK BAGOAS ETA
AGUR IKUSI ARTEAN.

URTE ONTXU BAT PASA DEIXULA
OSASUNES TA BAKEAS
OSASUNES TA BAKEAS ETA
AGUR IKUSI ARTEAN (A.I.)

Bilbon, 1981, Maiatzak 22